


Euskal AEko berrikuntza teknologiko jardueretarako gastua %3,3 gehitu 2016an, lau urtez jaitsi ondoren

Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileen %78k, Jauralaritzatik

2016an, Euskal AEko enpresek 2.524,6 milioiko gastua egin zuten teknologia berritzeko jardueretan; %+3,3 aurreko urtearen aldean, Eustaten arabera.

Gastu nagusiak: barruko I+G (%51,1); makinak eta ekipoa erostekoa (%20,5); kanpoko I+Gren erosketak (%16,1); gainerako jarduerak %12,2.

1. grafikoa: Berrikuntza gastuaren banaketa jardueren arabera (%). 2016



Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Euskal AEko enpresen %16,4, berritzaile

2016an enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa edo ez-teknologikoa), %16,4, 2015ean baino ehuneko 5 hamarren gutxiago. 10 langile eta gehiagokoen %34,0 berritzaile, 2015ean baino ehuneko 0,6 puntu gutxiago.

1. taula: Enpresak berrikuntza motaren eta tamainaren arabera. 2014-2016

Euskal AE	Berrikuntza teknologikoa		Enpresa berritzaile teknologikoak	Berrikuntza ez-teknologika		Enpresa berritzaile teknologikoak	Enpresa berritzaileak (1)	Enpresa berritzaile EIN (1) (2)
	Produktuan	Prozesuan		antolamenduan	merkaturatzean			
Guztira	7,8	8,7	11,4	5,3	6,0	9,4	16,4	17,0
10 enplegatu eta gehiago	17,5	22,2	27,9	15,6	8,9	19,4	34,0	35,6

(1) Berrikuntza teknologikoa eta/edo ez-teknologika

(2) Aribideko edo huts egindako berrikuntzako enpresak barne daude

Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Euskal AEn, 2014-2016 aldian, enpresen %11,4k (18.394k) egin zuen berrikuntza teknologikorik, aurreko aldian baino ehuneko 0,5 puntu gutxiagok. Enpresa berritzaileak hartzen dira merkaturatzean produktu berriren bat (ondasuna edo zerbitzua) edo asko hobetutako produktuen bat sartu dutenak (%7,8 2016an), edota establezimenduaren baitan prozesu berriren bat edo asko hobetutako prozesua sartu dutenak (%8,7).

10 langile edo gehiagoko enpresetan %27,9; aurreko urtean baino ehuneko 0,3 puntu gutxiago. Enpresa horien artean, produktua eraberritu dutenak %17,5 dira; prozesua eraberritu dutenak %22,2.

Enpresa berritzaileen %26,4k finantzaketa publikoa jasotzen du.

Enpresa berritzaileen %26,4k finantzaketa publikoa jasotzen du. Eusko Jaurlaritzak nabarmentzen da, enpresa berritzaileen %20,6 finantzatzen du. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du, erabat edo partzialki, laguntzak jasotzen dituzten enpresen %78. 10 langile edo gehiago dituztenetan, %51,2k laguntzak jasotzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritzak da, halaber, enpresarik gehien finantzatzen duena, %36,9. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du, erabat edo partzialki, laguntzak jasotzen dituzten 10 langile edo gehiagoko enpresen %72.

2. taula: Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa teknologikoki berritzaileak, finantzazioaren jatorriaren arabera (%). 2014-2016

Unitatea: enpresa portzentajea

	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoajasozen dute hauetatik	26,4	51,2
Tokiko administrazioak	5,9	8,8
Foru aldundiak	7,4	15,8
Eusko Jaurlaritzak	20,6	36,9
Administrazio zentrala	7,5	16,7
Europar Batasuna	3,2	14,1

Iturria: Eustat. Euskal AEko berrikuntzaren inkesta

Enpresa berritzaileen %95,5ek uste du berrikuntzak eragin positiboa duela

%92,2k uste du berrikuntzak eragin positiboa duela produktueta, ondasun edo zerbitzuak direlarik; %75,2k barne-prozesuetan; %53,5ek enpleguan eta %46,4k dio bestelako eragin positiboak badirela, esaterako ingurumen inpaktu txikiagoa edo langileen osasun hobea.

10 langile edo gehiagokoetan, %95,3ren ustez bada eragin positiborik; %87,4k, produktueta; %73,2k barne prozesuetan; %65,5ek enpleguetan; %48,4k ingurumen inpaktu txikiagoa edo langileen osasun hobea.

Faktore jakin batzuek teknologia-berrikuntza oztopatzen dutela uste du enpresen erdiak baino gehiagok

Enpresen %55,9k uste du teknologia berrikuntza zailtzen duten faktoreak badirela. Faktore horien artean, ekonomikoak nagusi, %47,2. Gehiegizko arrisku ekonomikoak (%39,0); berrikuntzen kostu handiegia (%42,9); finantza-iturri falta (%35,5). 10 enplegatu baino gehiagoko enpresetan, berrikuntza oztopatzen duten faktoreak badirela uste dutenak %63,1 dira, aipatutako oztopoak berberak direlarik.

Berrikuntza ez teknologikoa

Berrikuntza ez-teknologikoa (enpresen %9,4k) antolaketa- edo merkaturatze-berrikuntzek osatzen dute. Antolaketa-berrikuntza enpresa barruan antolatze-metodo berriak ezartzea da enpresako barne-funtzionamenduan; euskal enpresen %5,3k egiten dute. Merkaturatzearena lehen erabili ez diren edo aurrekoak bezalakoak ez diren merkataritzako estrategia edo kontzeptuen egikaritzea da; Erkidegoko enpresen %6,0k egiten dute. Berrikuntza ez-teknologikoa, 10 langile edo gehiago enpresa-tamainan, %19,4; antolamenduan datza %15,6tan eta merkaturatzean %8,9tan.

Informazio gehiago.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62